

INGENIARITZA ZIBILA: LURRALDEA ERAIKIZ

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campus:** Gipuzkoa
- **Ikastegi antolatzailea:** Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)
- **Gradua/k:**
Ingeniaritza Zibila
- **Garapen-lekua (helbidea):** Europa Plaza 1, Donostia

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Proiektu honetan Ingeniaritza Zibileko Graduoko ikasleak izan daitezkeenak titulaziora gerturatuko dira, eduki akademikoak eta ikasketen bukaeran eduki ditzaketen lan-irteerak ezagutzuz.

Ohartu gara Batxilergoko ikasleek eta eraikuntzarekin lotutako Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleek (Ingeniaritza Zibileko Graduoko ikasleak izan daitezkeenek, alegia) ez dutela ezagutzen zertan datzan gradu horien ikasketa.

Horregatik, beharrezkoa da, lehenik eta behin, Ingeniaritza Zibileko Graduoko titulua eta ingeniariaren lanbidearen zeregina eta interesa argitzea eta ezagutaraztea ikasleei. Horretaz gain, ikasketa horiek gaur egungo gizartean daukaten garrantziaren berri eman beharko zaie. Azkenik, Ingeniaritza Zibileko profesionalak dituen lan-ingurunearen ezaugarriak azalduko zaizkie Batxilergoko ikasleei.

Hona hemen proiektu honen helburuak:

- Ikasle kopuru egoki bati tituluaren eta lan-aukeren berri ematea.
- Ikasle izan daitezkeen gazteak motibatu, eta matrikula kopuruak gora egin dezan lortzea.
- Batxilergoan kalifikazio onak dituzten ikasleak hautematea.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

i- Ingeniaritza Zibileko Graduoko titulazioa: ikasketa plana eta laborategiak.

ii- Lanbidea eta lan aukerak.

iii- Eskolak lan-ingurunearekin duen harremana:

- Enpresa eta GKE lankidetzako proiektuak.
- Profesionalek emandako hitzaldiak.
- Obra zibiletara egindako bisitak.
- Praktikak eta Gradu Amaierako Lana enpresetan.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

I) Ikasketak

Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren ezaugarriak eta Eskola honek eskainitako ikasketa-plana aurkeztuko zaizkie.

- Jasangarritasuna eta ekonomia zirkularrarekin ikasketa hauek daukaten harremana nabarmenduko zaie.
- Master-ikasketak egiteko aukera ere badaukatela azalduko zaie.
- Tituluak dituen lan-aukerak aipatuko zaizkie.

II) Praktiak: hurrengo praktikak burutuko dira:

- Egituren diseinuarekin erlazionatutako praktika.
- Mugikortasun jasagarria

III) Tituluko profesionalak

Lan-eskarmentua duen Ingeniaritza Zibileko Graduko profesional bati edota azken kurtsoan dagoen ikasle bati taldeko elkarrizketa egingo diote.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2025-01-22	Gaztelania	Arratsaldez	15:30 – 18:00	20
2025-01-22	Euskara	Arratsaldez	15:30 – 18:00	20
